

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatu Nagusiaren 227/2020 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa. Onespena ematea proiektuak gauzatzeko eta justifikatzeko epea luzatzeari, irabazteko xederik gabeko elkarte eta entitateei kultura arteko sentsibilizazio eta elkarbizitzarako programak edo jarduerak garatzeko dirulaguntzak emateko proiektuetarako. 2019ko ekitaldia

2019ko maiatzaren 22an, onetsi zen Diputatu Nagusiaren 222/2019 Foru Dekretua, zeinak irabazteko xederik gabeko elkarte eta entitateei dirulaguntzak emateko deialdia onetsi baitzuen, kultura arteko sentsibilizaziorako eta elkarbizitzarako programak edo jarduerak garatzeko (2019ko ekitaldia). Dekretu hori ALHAOn argitaratu zen 2020ko ekainaren 3an. Eranskinaren 10. artikulua ezartzen duenez, "Proiektuaren gastuen azken justifikazioa, hau da, diruz lagundu daitekeen aurrekontu osoa aurkezteko epea 30 egun baliodunekoa izango da, proiektua amaitzen den egunetik hasita".

2019ko abenduaren 13an, Diputatu Nagusiaren 509/2019 Foru Dekretua onetsi zen, zeinak dirulaguntza horiek esleitu baitzituen. Dekretu hori 2019ko abenduaren 27ko ALHAOn argitaratu zen. Dekretu horren I. eranskinean, diruz lagundutako proiektuen hasiera eta bukaera datak adierazi ziren.

Diputatu Nagusiaren martxoaren 25eko 121/2020 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaion proiektuak gauzatu eta frogagiriak aurkezteko epe berriei, hainbat erakundek hartarako eskaerak egin baitzituzten.

COVID19ak eragindako egoeraren ondorioz, eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onetsi ondoren, zeina martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak aldatu baitzuen, administrazio epeak eten ziren, eta berriz ere hasi dira 2020ko ekainaren 1ean.

Martxoaren 31ko 11/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 54. artikulua proiektuak gauzatzeko epeak luzatzea ahalbidetzen du eta, hala badagokio, diruz lagundutako jardueren frogagiriak eta egiaztagiriak aurkeztekoa ere. Artikulu horrek, bere lehenengo apartatuan, hau ezartzen du: "Dirulaguntzak emateko prozeduretan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan jasoriko dirulaguntzak eta laguntza publikoak emateko eta deialdia egiteko agindu eta ebazpenak aldatu ahal izango dira, baldin eta 463/2020 Errege Dekretua indarrean sartu den unean eman badira, diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epeak luzatzeko, eta, hala badagokio, jarduera gauzatu dela justifikatu eta egiaztatzeke, nahiz eta hori ez jaso izan kasuan kasuko oinarri arautzaileetan. Ondorio horietarako, organo eskudunak honako haiek soilik justifikatu beharko ditu: alarma egoera indarrean dagoen bitartean diruz lagundutako jarduera ezin egin izana, eta jarduera amaitu ondoren geratzen den epea nahikoa ez izatea diruz lagundutako jarduera egiteko edo jarduera justifikatu edo egiaztatzeke."

Deialdiaren onuradunak diren irabazteko xederik gabeko elkarte eta entitate bakoitzaren errealitateak askotarikoak dira diruz lagundutako jarduerak egin ahal izateko. Alarma egoeraren eta COVID19ak eragindako osasun, ekonomia eta gizarte krisiaren ondorioz, Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuko uste dugu beharrezkoa dela berriz ere luzatzea proiektuak gauzatzeko eta justifikatzeko epea; hartara, jarduera horiek gara daitezela ahalbidetuko eta lagunduko dugu, inguruabarrek haiek normaltasunez garatzea eragotzi edo oztopatu dutelako.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea dekretu honen I. eranskinean adierazten diren sentsibilizaziorako eta kulturen arteko bizikidetzarako programak eta/edo jarduerak garatzeko dirulaguntza publikoen deialdiaren onuradun diren irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeen exekuzio eta justifikazio epea, bertan zehaztutako epe berriekin. Dekretu honen eranskinean jasota ez dauden irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeek aldeztu aurretik ezarritako epeei eutsiko diete.

Bigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari berari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzea, eta han argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 21a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendaria

NEREA MELGOSA VEGA

ERANSKINA I							
ESPEDIENTEA	ERAKUNDEA	IFK	EGITASMOA	HASIERA-DATA	AMAIERA-DATA	JUSTIFIKATZEKO DATA	2020ko aurrekontura estaltutako % 20a
19/94/08-14	BAKERAKO LANKIDEITZA BATZARREA	G80176845	DIBERTISTAREN ISTORIOAK/HISTORIAS DE LA DIVERSIDAD	1/9/19	1/10/20	13/11/20	1368,78 euroak
19/94/08-04	SOLIDARIDAD INTERNACIONAL	G48301428	APRENDIENDO LA DIVERSIDAD: EDUCACIÓN INTERCULTURAL- FASE VII	1/12/19	9/11/20	22/12/20	1599,88 euroak
19/94/08-10	AMPA VIRGEN DEL TOLÓN DEL COLEGIO PÚBLICO DE LABASTIDA	G01044866	MEJORANDO LA CONVIVENCIA ESCOLAR DEL CEIP LABASTIDA HLHI DESDE UNA APROXIMACIÓN INTERCULTURAL	1/9/19	9/11/20	22/12/20	1600,00 euroak
19/94/08-11	CEAR-EUSKADI	G48839856	DOCUMENTAL SOBRE CIUDADANÍA ANTE LOS DISCURSOS POLÍTICOS XENOFOBOS: VIDEO PARA PROFESIONALES DE LA COMUNICACIÓN POLÍTICA	1/8/19	3/8/20	13/10/20	1595,37 euroak
19/94/08-18	FUNDACIÓN ADRA	G-82262932	CONVIVIENDO CON EL TEATRO III	1/11/19	2/11/20	15/12/20	1174,00 euroak
19/94/08-15	ASOC. AFRICANISTAMANU EL IRADIER	G01053784	AFRIKA EZAGUTU I / CONOCER AFRICA I EDICIÓN	1/10/19	30/10/20	14/12/20	1596,06 euroak
19/94/08-17	ARABAKO KONTZIEU ELKARTEA ACCO-AKE	G01241629	EL APOYO MUTUO	1/10/19	2/11/20	15/12/20	911,84 euroak